

Literatura Unibertsala bildumako hitzaurreen azterketa¹

Estudio de los prólogos de la colección *Literatura Unibertsala*

Etude de préfaces de la collection *Literatura Unibertsala*

An examination of the prologues of the *Literatura Unibertsala* collection

IBARLUZEA, Miren

Université Sorbonne Nouvelle-Paris 3, Paris – Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV)

Noiz jaso: 2014-03-26

Noiz onartua: 2014-04-28

¹ «Hitzaurrea *Literatura Unibertsala* bildumari» artikulu honen oinarrian dugu 2013ko uztailean Donostian EHUren XXXII. Uda Ikastaroetan egindako «Azkenaldian euskarara itzultitako literatura: bideak, joerak eta esperientziak» ikastaroaren barruan emandako hitzaldia. Orduan esandakoak osatu eta zabaldu dira hemen. Halaber, *Lapurdum* aldizkarian laster argitaratzekoa den «*Literatura Unibertsala* bildumaren bideak» artikulua osagarri da. Biak ala biak *Literatura Unibertsala* bildumaren azterketa zabalago baten bi piezatzat har daitezke. Bihoakie nire esker ona Mari Jose Olaziregi irakasleari, emandako aholkuengatik, eta Isabel Etxeberria eta Iñigo Roque adiskideei, orrazketa-lanengatik (testuan egon daitezkeen akats guztiak egilearenak dira, noski).

Literatura Unibertsala itzulpen-bildumaren paratestuen azterketan, nabarmentzekoa da liburuek itzultzaileak idatzitako hitzaurrea dakartela. Lan honetan bildumaren lehen bi aroetako 152 hitzaurreak aztertu ditugu, Genetteren (1987) eta Risterucci-Roudnickiren (2008) sailkapenei jarraikiz: hitzaurreon zenbait nolakotasun agerian jarri ditugu, bai eta itzultzaileen diskurtsoa aztertu ere, bildumaren azterketarako eta aurrerantzeko literatur itzulpen-lanen balizko hitzaurregileen bidelagun.

Hitz-gakoak: Itzulpen-ikasketak, Paratestuaren azterketa, Itzulpenen hitzaurreak, *Literatura Unibertsala* bilduma

Las traducciones literarias de la colección *Literatura Unibertsala* cuentan entre sus paratextos con un prólogo escrito por el traductor. En el presente artículo se analizan las 152 introducciones de las primeras dos etapas de la colección, en base a las clasificaciones de Genette (1987) y Risterucci-Roudnicki (2008). Se describen algunas de las características de los prólogos así como el discurso de los traductores, con el fin de analizar la colección y servir a futuros prologuistas de traducciones literarias.

Palabras clave: Estudios de traducción, Análisis paratextual, Prólogos de traducciones, Colección *Literatura Unibertsala*

Les traductions littéraires de la collection *Literatura Unibertsala* comportent dans leurs paratextes une préface écrite par le traducteur. Cet article analyse les 152 introductions des deux premières étapes de la collection et sert de base aux classifications de Genette (1987) et de Risterucci-Roudnicki (2008). Il décrit quelques-unes des caractéristiques des préfaces ainsi que le discours des traducteurs, afin d'analyser la collection et de servir à de futurs rédacteurs de préfaces de traductions littéraires.

Mots-clés: Etudes de traduction, Analyse paratextuelle, Préfaces de traductions, Collection *Literatura Unibertsala*

When the paratext of the collection of translations entitled *Literatura Unibertsala* is examined, the fact that the translations include a foreword written by the translator is worthy of note. The 152 introductions corresponding to the first two phases of the collection have been analysed, on the basis of the classifications established by Genette (1987) and Risterucci-Roudnicki (2008). Some of the features of the forewords have been highlighted together with the translators' discourse, with the aim of analysing the collection and of assisting future writers when providing forewords for collections of literary translations.

Keywords: Translation studies, paratextual analysis, translation forewords, *Literatura Unibertsala* collection

Sarrera

Literatur lanetako paratestuen azterketa baliagarri zaigu literatur sistema bera deskribatzeko. Itzulpenen paratestuen azterketan, nabarmentzeko ezaugarria da, hortaz, hitzaurrerik baden edo ez den aztertzea; izan ere, hitzaurreak itzulpen-sistemako arauak deskribatzeko ikergai gisa erabil daitezke Itzulpen Ikasketetan. Bada, *Literatura Unibertsala*² bildumako liburu guztiek hitzaurre bat daukate. Nabarmentzeko ezaugarria da hori, are gehiago hitzaurrea itzultzaileak berak idazten duela jakinda. EIZIE elkarteak Eusko Jaurlearitzaren laguntzarekin sustatutako LU bildumako hitzaurre gehienak itzultzaileak idatzitakoak dira, baina zergatik idazten dute itzultzaileek hitzaurrea? Zer diote itzultzaileek hitzaurreotan? Zer funtzio betetzen ote dute hitzaurreok? Zer ataletan banatzen dira? Nolakoak dira?

Askotarikoak dira bildumako hitzaurreak, eta aniztasun hori aletzen saiatuko gara artikulu honetan. Bildumaren lehen bi aroetako 152 hitzaurreak aztertu ditugu, Genetteren (1987) eta Risterucci-Roudnickiyren (2008) sailkapenei jarraikiz. Lan honen helburua LU bildumako hitzaurrei buruzko zenbait nolakotasun agerian jartzea da, bildumaren azterketarako eta baloraziorako material gisa, bai eta literatur itzulpenen etorkizuneko hitzaurregileen bidelagun zein itsuaurreko gisa ere.

Hitzaurrea paratestu: zer dio teoriak?

Genettek (1987) emandako definizioaren arabera, paratestua literatur testua bera inguratzen duten osagaien multzoa da: peritestua eta epitestua. Peritestua bolumenaren espazio berean ageri da; epitestua, berriz, bolumenetik kanpo (gehienetan euskarri mediatikoak izaten dira, baina pribatuak ere izan daitezke: kritikak, gutunak, publizitate-afixak...). Gurera etorrita, Euskaltzaindiaren *Literatur terminoen hiztegia* lanean honelaxe definitzen da paratestua (Jon Casenavek idatzita):

² Aurrerantzean: LU.

Testua aurkezten, inguratzen, mugatzen, mozten, tartekatzen, gehitzen eta bururatzen duten ezaugarri guztiek paratestua osatzen dute. Liburuaren izenburua, kapitulu eta atal nagusien izenburuak edo ezaugarriak, aurkibidea, estalkian dauden xehetasunak eta laburpenak, eskaintzak, epigrafeak edo agerian ezarriak diren beste hitz lerro motak, aitzinsolasak, eta ondoko solasak, artean emanak diren nota eta ohar multzoak, horiek oro paratestuan sartzen dira.

(2008: 629-630)

Paratestuaren eta, zehatzago esanda, peritestuaren parte da, beraz, hitzaurrea. Hitzaurre esateko darabiltzagu, halaber, *aitzinsolas*, *atariko*, *sarrera*, *sartaurre* zein *sarbide* terminoak. Zuberoako pastoraletan, esaterako, *aitzin pheredikü* darabilte. Gatozen berriz *Literatur terminoen hiztegia* lanera. Hone-laxe azaltzen dira bertan hitzaurrei buruzkoak *Aitzinsolas* sarreran (Patri Urkizuk idatzita):

Oro har, obra baten aurretik doan testua izaten da, egileak berak ala beste norbaitek hura aurkezteko idatzia. Greziar antzertian, koroaren lehen parte hartzearen aurretik egiten zen ekintza zatiari *prologos* deitzen zitzaion. Hitzaldi baten bidez, ekintza ongi ulertzeko garrantzizkoa zen informazioa aurreratzen zen eta, era berean, ikusleen integrazioa lortzeko eta ikuskizunarekiko distantzia gainditzeko beharrezkoa zen testua aurkezten zen. Hortaz, usadioz, aitzinsolasaren funtzioa gaia azaltzea edo kokatzea izaten da gehienguan.

(2008: 23)

Literaturan ikergai izaten dira sarri hitzaurreak, eta, hain zuzen ere, bi sarrerotan azaltzen zaigunez (ikus «paratestu» eta «aitzinsolas» sarrerak aipatu hiztegian), gurean gehien ikertu diren paratestuak izenburuak eta hitzaurreak dira. Zenbatetan ez ote da aipatu, aztertu eta baliatu, esaterako, Axularren *Geroko* «Gomendiozko karta» eta «Irakurtzailleari», edo, itzulpenaren alorrean, Leizarragak bere itzulpenari idatzitako aitzinsolasa. Paratestuei lotutako lanak dira, besteak beste, pare bat aipatzearen, P. Salaberriren *Euskal klasikoen atarian* (2004) liburua (hainbat euskal idazleren hitzaurreak biltzen dira) edo Beñat Oyharçabalek argitaratutako «Les pro-

logues auctoriaux des ouvrages basques des XVIe et XVIIe siècles»³ artikulua. Aiora Jakaren *Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarrionandiaren lanetan* tesi-ikerketako 2. eta 3. kapituluak ere aipatzekoak dira⁴: 2. kapitulan, Sarrionandia baino lehenagoko euskal itzultzaileen itzulpenari buruzko gogoeta aztertzen da; eta 3. kapitulan, hain zuzen ere «3.1. Itzulpenari buruzko gogoeta Sarrionandiaren lanetan» atalean, ikergai den egilearen hitzaurreak aztertzen dira, itzulpenari buruzko diskurtsoa analizatzeko.

Paratestuak (eta, hortaz, hitzaurreak) definitzen dituzten ezaugarriak dira testuon kokapena, denbora, historia, forma, igorlea, hartzailea, funtzioa eta landutako gaiak. Ezaugarri araberak sailkatzen dira hitzaurreak (Genette, 1987).

Aletu ditzagun, bada, Genettek emandako argibideei jarraikiz (lantzean beste aditu batzuek esandakoak gehituta).

Kokapenari dagokionez, hitzaurreak eta hitzatzeak ezberdintzen ditugu (Genette, 1987). Ouvry-Vialen (2004: 17-18) esanetan, hitzaurrearen eta hitzatzearen kasuan posizioak berak garrantzia du, irakurketa-protokolo bat ezartzen baita: hitzaurrearen aldean, hitzatzea apalagoa da, bere egitekoa azalpenezkoa da, justifikaziozkoa. Hitzaurrearen egitekoa, ostera, "hautu anuntziatua" egitea da, testua irakurri aurretik bertatik irakurleari "zirrara eragitea". Hitzatzearen asmoa, ostera, irakurlearen plazer-unea luzatzea da, hasieratik behar ez ziren datuak ematen ditu, testua aberasten dutenak. Hitzatzeak ez du testurako sarbidean parterik hartzen; fitxategi erantsi bat da.

Bestalde, hitzaurrea (eta hitzatzea) artxibo bat ere bada, glosa bat, elkarriketa bat irakurlearekin; hitzaurrea egitea testua sailkatzea da, testuari memoria kritikoa atxikitzea. Hala, testu baten harreraren jarraipena ere egin daiteke bere hitzaurreen eboluzioari begiratuta. Hitzaurre batzuk berregitaratu egiten dira, zuzendu, osatu, itzuli, bildumetan jaso... Beste batzuk, ostera, behin baino ez dira argitaratzen (argitaratu gabeak ere izango

³ *Lapurdam* 4, 1999.

⁴ Euskaltzaindiak eta EHUK argitaratua: IKER 28, 2002.

dira), eta desagertu egiten dira gero. Bere ibilbidea egiten du, beraz, hitzaurreak, lantzean literatur testua bera baino sona handiagoa lortzeraino.

Hitzaurrearen argitalpen-uneari begiratuta, literatur testuaren agerpenaren aurretikoa, aldi berekoa edo ostekoa izan daiteke; formari erreparatuz gero, nabarmentzekoa da oro har prosa ez-lirikoan idazten dela hitzaurrea; hala ere, azken hori ez da baitezpadako ezaugarria (Genette, 1987).

Hitzaurregilearen arabera ere sailka daitezke hitzaurreak: hala, autorialak (sinatutakoak dira, testuaren egilea da hitzaurregilea), aktorialak (akzioaren pertsonaietako bat da hitzaurregilea), alografoak (hirugarren bat da hitzaurregilea) edo apokrifikoak (sinadurarik gabeak, kasu batzuetan anonimoak) izan daitezke. Hitzaurrea izengoitiz sinatuta ere egon daiteke; azken kasu horretan inplizituki autoriala dela esaten da. Hitzaurrea semi-autoriala dela esaten da testuak bi egile dituenean (*idem*).

Hitzaurregilearen sona edo «itzala» garrantzitsua izaten da hitzaurrearen beraren harreran zein literatur testuaren harreran (*ibidem*). Izan ere, hitzaurregilea «irakurle aukeratua» da, «irakurle gaitua» (Ouvry-Vial, 2004: 16).

Hitzaurrearen hartzailea literatur testuaren irakurlea izaten da (kontuan hartu beharrekoa da irakurlea ez dela publikoaren sinonimo; izan ere, publiko osoarentzat dira azalak eta izenburua, baina ez hitzaurrea). Batzuetan, pertsona jakin batzuei zuzendutako gorazarreak, eskaintzak edo eskerrak ere izan daitezke hitzaurreak (Genette, 1987).

Hitzaurreen funtzioei dagokienez, hona hemen hainbat: informatzea, helburua adieraztea, interpretazioa eskaintzea, irakurleekin egiten den ituna zehaztea, aholkua ematea, eskaintza egitea, aurreko paratestuak zuzentzea, testuaren egiletza ukatzea (egileak egin dezake, esaterako, jolas gisa) edo testuaren egiletza baieztatzea, kasurako. Ouvry-Vialek dioskunez, azpimarratzekoa da hitzaurreen funtzio didaktikoa, testuon helburua izaten baita irakurlearen ikasketa-prozesuan eragitea, irakurgarritasunari bide ematea. Hargatik, halaber, eboluzionatu egiten du hitzaurreak berak, eta, tarteka, hitzaurre berriak idatzi behar izaten dira. Antologietan, esaterako, testuen hautaketarako justifikazioa azaltzea izan daiteke hitzaurrearen xedea (Genette, 1987).

Bestalde, hitzaurrea irakurlearen eta testuaren zein egilearen arteko «bi-tarteko espazio» bat ere bada, idazlearen unibertsorako sarbidea edo portalea. Nolabait, hitzaurreen atzean dagoen mezua hau da: testu honek zailtasun jakin bat du, eta laguntzera dator testu gehigarri hau (Ouvry-Vial, 2004). Hitzaurregai izaten dira lanaren zergatiaren azalpena, garrantzia, berritasuna, tradizioa, batasuna, egiazkotasuna, nolakotasuna, genesisia, publikoaren hautua, izenburuari buruzko oharra, fikziozko kontratuak, irakurtzeko ordena, testuinguruaren adierazleak, intentzioaren deklarazioa, definizio generikoak... (Genette, 1987).

Oso kontuan hartzekoa da hitzaurreak gordetzen (edo agertzen) duen subjektibotasuna; azken finean, aurretik aletutako ezaugarriak testuinguru jakin batean sortzen baitira. Historia, ideologia, edizioa... paratestuan islatzen dira. Eraginen hartzaile dira paratestuak, eta sortzen direneko atmosferaren diskurtsoa ere erantsi egiten da (Payen de la Garanderie, 2004).

Bada, zer jazotzen da itzulpenei egindako hitzaurreen kasuan?

Si préfacier consiste à situer un écrivain et un oeuvre pour le lecteur, comment s'effectue cette contextualisation dans le cas d'un texte venu d'ailleurs, en particulier lorsque ce texte est pour la première fois présenté au public (...)?

(Salado, 2004: 89)

Transferentziatzeko hitzaurre edo hitzatze esaten die Danielle Risterucci-Roudnicky-k (2008) itzulpenak laguntzen dituzten hitzaurreei, eta kasu horretan bi ahots daude jokoan: jatorrizkoa eta helmugakoa.

Itzulpenak argitaratzen direnean, zenbaitetan, jatorrizko hitzaurreak gorde egiten dira; beste batzuetan, jatorrizko hori gordetzeaz gainera, beste hitzaurre bat ere gehitzen zaie (bata hitzaurre gisa gera daiteke, eta bestea hitzatze gisa). Garrantzitsua da, beraz, itzulpena, transferentzia, gertatzen denean hitzaurreekin zer gertatzen den aztertzea: ezabatu egiten dira?, aldatu?, gorde?, nola gordetzen dira?, testu berriak sortzen dira? (Risterucci-Roudnicky, 2008). Azterketa horrek hainbat informazio eman dezake testuaren eta irakurlearen beraren eboluzioaz, bai eta literatur sistema jakin bateko itzulpengintzaren egoeraz ere. Halaber, ikergai dira ondokoak: nori

zuzentzen zaio hitzaurrea, jatorrizko hizkuntza edo kulturako irakurleari ala helburu-hizkuntzako eta -kulturako irakurleari? Edo irakurle orori?

Risterucci-Roudnicky ikertzailearen lanen arabera, honako hauek dira transferentziatzko hitzaurreak sailkatzeko irizpideak: a) hitzaurregileak itzulitako obrarekin duen hizkuntzazko eta kulturazko lotura eta irakurleek hizkuntza eta kultura horrekin duten lotura; b) hitzaurregilea: egilea, itzultzailea, kritikaria den (batzuetan hiruren hitzaurreak ageri dira bolumen berean); eta c) itzulpen batean edo berritzulpen batean agertzen den hitzaurrearen data (itzulpenen historizitateari buruzkoak jakinarazteko balio du, besteak beste). Honela sailkatzen ditu transferentziatzko hitzaurreak aipatutako ikertzaileak (Risterucci-Roudnicky, 2008: 49):

- Hitzaurre autorialak
 - Jatorrizko herrialdekoak, hartzailearentzat eginak.
 - Atzerrikoak, hartzailearentzat eginak.
 - Hartzailearen herrialdekoak, hartzailearentzat eginak.
- Hitzaurre alografoak
 - Hartzailearen herrialdekoak, hartzailearentzat eginak.
 - Atzerrikoak, hartzailearentzat eginak.
- Itzultzaileen hitzaurreak
 - Itzultzaileak edo itzultzaile-taldeak eginak.
 - Berritzultzaileak edo berritzultzaile-taldeak eginak.

Risterucci-Roudnickyk zehazten duenez, ez da ohikoa izaten autore batek bere sistemaz kanpoko publikoarentzat hitzaurreak idaztea, eta hala denean alderdi hori nabarmentzea komeni izaten da. Zenbaitetan, autore jakinen hitzaurreak paratzen dira beste autore batzuen itzulpenean (sistema berekoak zein beste sistema batekoak), harrera hobea izan dadin, inportazioa erraztea xede hartuta. Itzulitako literaturaren corpusean hitzaurre alografoek osatzen dute corpus handiena (Risterucci-Roudnicky, 2008).

Bada, batez ere nabarmen daitekeena hauxe da: itzulpenaren historia eta hari buruzko gogoeta historikoa egiteko piezak direla hitzaurreak, hainbat gairen inguruan argi egin dezaketanak: joerak, itzulpenen zahartzea, aurre-

ko itzulpenen kritika, izenburu-aldaketak, itzulezintasuna, testuarekiko negoziazioak, hautuak... (*idem*).

Honela azaltzen du Sanconiek (2007):

La question est de savoir si l'espace péritextuel est aussi le seuil de la traduction ou son extension naturelle. Car ces commentaires servent la littérature tout autant que la traduction elle-même. Préfaces et postfaces ont un rôle éditorial manifeste dans les conditions de réception du livre, et lorsqu'elles sont le fait des traducteurs de l'ouvrage, elles soulignent alors le rôle de la traduction comme outil de connaissance du fait étranger ainsi que l'appropriation (certes momentanée... et dûment encadrée) du texte par le traducteur. Elles soulignent en même temps les limites de l'opération de traduction –puisque le traducteur a éprouvé la nécessité de commenter-, et sans doute aussi l'impossibilité pour un traducteur de ne pas faire de commentaire s'il veut s'affirmer à son tour comme lecteur et/ou comme auteur, le péritexte devenant alors le lieu de résolution de la tension entre le texte et son traducteur.

(Sanconie, 2007: 174)

***Literatura Unibertsala* bildumako hitzaurreak sare sozialetan aipagai**

31 eskutik blogean «Itzultzaileak gaindimentsionatuta? (salaketa bat edo bi)» izenburupean Angel Errok idatzitakoak dira azpikook:

Urtetan galdetu diot neure buruari *Literatura Unibertsala* saileko liburuei zergatik ez dien obra bakoitzean aditu batek idazten. Ez nuke kasu bakar batean zentratu nahi (gainbegiratu ditudan eta jatorrizkoan lehenagotik eta ia buruz ezagutzen nituen pasarteetan behintzat, nire ustez, onik atera baita itzultzailea), baina kezka hau berritu dit *Literatura Unibertsale*koetatik eskuratu dudan azken aleak, Pedro Calderón de la Barcaren *Bizitza amets-ek*, Xabier Payák euskaratuak. Itzultzaileak hitzaurrea ere idatzi dio, Calderónen lana argitu eta hurbilduko lukeen aurkezpenean baino itzulpenaren irizpideetan luzaturik.

Sail horren eredutzat nahiko nukeen *Cátedra* argitaletxeko *Letras Universales* sailean itzultzailea eta sarreragilea maiz bereizten dituzte.

(...) Ez dut esan nahi itzultzailearen hitzaurre horiek interesgarriak ez direnik. Juan Garziaren Shakespeareren *Soneto hautatuak* itzulpenaren aitzinsolasa ere nabarmen, eta are arrandiaz, makurtzen da Shakespeare eta (bere) sonetoak euskarara ekartzeko auziaren aldera, eta oso gogokoa dut testua.

Hobe genuke, dena den, bi eginkizunak pertsona ezberdinen esku uztea, gutxi direlako bai itzulpenari bai hitzaurre (eta aparatu kritiko) egoki bati behar bezala kara emateko gauza⁵.

Erantzunetan honako hau ageri da:

Iñigo Roque (@Idazkola), 2013/03/12 at 09:57

Ez zara bakarria izan, Angel. Hitzaurreokin antzeko kezka izan dut nik beti, ez ote zen egokiago aditu bati sarrerako hitz batzuk eskatzea edo beste edizio baten hitzaurrea euskaratzea.

Calderónen kasuan, ordea, guztiz pertinentea iruditzen zait itzulpenari berari buruz jardutea, zeren, jatorrizko hizkuntza gaztelania izanik, askorentzat oraindik burugabea baita halako lanei ekitea, horiek estilo-ariketa hutsak balira bezala.

Beraz, zenbaitetan jakingarri gerta dakizkioke irakurle arruntari itzulpenaren barruko gogoetok, eta baita pizgarri ere liburua erosteko⁶.

Aurreko artikuluaaren harira, Twitter sarean argitaratu zuen Beñat Sarasolak ondoko txioa: «Nire ustez *Literatura Unibertsala* sailaren ahulguneetako bat dira hitzaurreak». Dagoeneko dagokigun lan honetan ari ginelarik, txiolariak xaxatu nahi izan genituen, bazka bila edo: «Zergatik hitzaurreak ahulgune? Hitzaurreei buruzko berbaldia prestatzen ari naiz eta sakon azter dezagun...» bota genuen. Angel Errok erantzuna: «Hitzaurreok eta artikuluan aipatzen dudán Cátedrako edozein hartu eta begien bistakoa ahulezia

⁵ <http://31eskutik.com/2013/03/12/itzultzaileak-gaindimensionatuta-salaketa-bat-edo-bi/>.

⁶ *Ibidem*.

non dagoen». Iñigo Roque Eguzkitzak arrapostu egin zion: «Et, et, et. Cátedra-koak edizio kritikoak dira, eta LUkoak ez. Aldea nabarmena da». Aski ez eta berriz ekin genion: «Hitzaurrea itzultzaileak idazten du LU bilduman. Horretaz ari zarete? Esango didazue». Beñat Sarasolak erantzun zidan: «Niretzat arazoa ez da itzultzailea izan edo ez. Oso irregularrak direla, ez dute kriterio finkorik, eta abar»⁷.

Usteak uste, iritziak iritzi eta esanak esan, literatur itzulpenaren inguruko solasaldietan hitzaurreak aipatzeak gaiaren inguruko interesa uzten du agerian. Halaber, gaiaren inguruko hainbat auzi bistartzeko balio du: hitzaurrea behar ote dute itzulitako literatur obrek?, itzultzaileak idatzi behar ote ditu hitzaurreok?, beste inork idatzi behar ote ditu? nork?, zer helbururekin? LU bildumarekin alderatuta, oso bestelako jokabidea ageri da, esaterako, *Klasikoak* bildumako hitzaurreetan⁸.

Edonola ere, LU bildumako aleen hitzaurreen azterketa sistematikoa beharrezkoa da bere nolakotasunez jabetzeko. Bada, ikus dezagun nolakoak diren aipagai ditugun hitzaurreak.

LU bildumako hitzaurreak, azterketa deskribatzaile bat

LU bilduma auzo-hizkuntzetan sortu eta euskarara itzulitako literatura-lanez osaturiko liburu-bilduma da. Liburuok 1989az geroztik argitaratzen dira, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak EIZIE Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin egindako hitzarmenari esker. Itzultzaileak eta argitaletxeak lehiaketa bidez aukeratzen dira⁹. Lehen aroan (1990-2002) 100 liburu itzuli ziren, eta *Ibaizabal* argitaletxeak kaleratu zituen liburuak. Bigarren aroan (2002-2010), berriz, beste 52 liburu kaleratu zituzten *Elkar* eta *Alberdania* etxeek, lankidetzan. 2011. urtean abiarazitakoa da

⁷ 2013ko martxoaren 12koak dira txioak, honako hauek argitaratuak: @angelerro, @bsarasola, @Idazkola eta @mibarluz.

⁸ Webgune honetan daude ikusgai: <http://www.ehu.es/ehg/klasikoak/>.

⁹ Ikus informazio gehigarria EIZIEren webgunean: http://www.eizie.org/Argitalpenak/Literatura_Unibertsala.

bildumaren hirugarren aroa: *Alberdania*, *Erein* eta *Igela* argialetxeek bat eginik aurkeztutako proiektuari esleitu zitzaion datozen urteotan beste 50 liburu argitaratzeko ardura.

Bada, lan honetarako LU bildumako lehen bi aroetako hitzaurreak aztertu ditugu (152 ale orotara). Bildumako aleetatik bertatik erauzi ditugu 109 hitzaurre, eta, eskura ez genituela eta, Armiarma proiektura («e-book» zein «Euskarara ekarriak» ataletara)¹⁰ jo dugu 43 aleren kasuan.

Ondoko ezaugarriei erreparatu diegu: hitzaurrerik baden edo ez; bat baino gehiago daudenean zein diren; hitzaurregileak nor diren; hitzaurreei *copyrighta* esleitzen zaien; hitzaurreen forma, luzera, izenburua eta edukia; berrargitalpenetan zer gertatzen den; eta autore beraren obretan nola jokatzen duten hitzaurregileak.

– Hitzaurrerik bai?

Kontratuan hala adierazita dakarrelako idazten dute itzultzaileek hitzaurrea LU bilduman; hain zuzen ere, hala egiteko baldintza jasotzen da itzultzaileek eta EIZIE elkarteak sinatzen duten kontratuan:

5. Itzulpenarekin batera aurkeztu beharreko testuak

Itzulpen-bilduma osoari nolabaiteko duintasuna ematearren, itzultzaileak ondoren adierazten diren testuak aurkeztu beharko ditu:

- hitzaurre gisako sarrera bat (2 orrialdekoa, gutxienez).
- idazleari buruzko testu bat eta itzultzaileari buruzko beste bat (6-7 bat lerrokoak) liburuaren barneko azal-hegaletarako.

Testu horien ordainketa itzulpenari dagokion zenbatekoan jasota dago¹¹.

¹⁰ <http://www.armiarma.com/>.

¹¹ 2011ko kontratu-eredutik jasotako testua da hona aldatutakoa.

Bildumari «duintasuna ematearren» idazten du itzultzaileak hitzaurrea, kontratuan idatzitakoaren arabera¹².

Beraz, LU hitzaurrean bilduma da izatez, eta itzultzaileak idazten du hitzaurrea. 152 aleetatik bakarrak ez du hitzaurrerik, 35.ak: Karlos Cid Abasolok itzulitako *Xveik soldadu onaren menturak II* (Jaroslav Hasek). Begibistakoa da arrazoia: aurreko baten segida izanik, hitzaurrea lehenengo bolumenean dator.

– Hitzaurregileak

Nahiz eta, oro har, itzultzaileak izaten diren hitzaurregile LU bilduman, 38 aletan hitzaurreek ez dute sinadurarik. Sinatu gabeko hitzaurrean aletan lehena 1 zenbakidun alea da, eta azkena, ostera, 84. zenbakia. Nolanahi ere, zenbaitetan, hitzaurrea sinatu gabea izan arren, itzultzailearena dela ondoriozta daiteke, modu esplizituan agertzen baita adierazita zenbait esamoldetan; ikus ditzagun adibide bi:

Koldo Bigurik itzulitako Leonardo Sciasciaren *Hontzaren eguna* (LU, 8. zk.) obraren hitzaurre sinatu gabean, egileaz eta bere obraz aritu ostean, itzultzailearen oharra dator:

Itzultzailearen oharra: Itzultzailea ia beti ilunpean ezkutaturik geratzeko ohitura oso zabalduaren kontra, ezin naiz geratu liburu honen itzulpenean lagundu didaten pertsona beren ahalegina aitortu gabe; horregatik, bihoakie nere eskerrik zintzoena Lurdes Auzmendi, Joseba Butron, Marianna Massimello, Anna M^a San Felice eta Imanol Zurutuzari.

Lehenengo pertsonan egindako adierazpena da; hala, pentsatzekoa da itzultzailea bera dela hitzaurregilea. Gauza bera gertatzen da, besteak beste, Jon Muñozek itzulitako Choderlos de Laclosen *Harreman arriskutsuak* (LU, 58. zk.) obraren hitzaurrean:

¹² Itzultzailearen ikusgarritasuna nabarmentzeko bidea ere izan zitekeen ustez abiatu genuen ikerketa hau, baina ez dugu hitzaurreon funtzio horri buruzko aipamenik inon aurkitu.

Nobela hau itzultzeko argitarapen hau erabili dut: «Les liaisons dangereuses, Pierre Choderlos de Laclos. Édition présentée, commentée et annotée par Béatrice Didier. Le livre de poche, 354». Hitzaurre honetan aipatutako datu eta argibide gehienak ere Béatrice Didier-ek edizio horretan bertan adieraziak dira.

Itzulpen honetako bizpahiru gutun Juan Garziak egindako itzulpean oinarrituak dira. Eskerrak eman nahi dizkiet baita ere Joxean Muñoz, Antton Olano, Juan Mari Arzallus, Jose Luis Agote eta batez ere Josu Zabaletari itzulpen hau irakurtzeagatik eta egin dizkidaten oharrengatik. Orobat Ibaizabal argitaletxeko Joxe Antonio Sarasolari.

Hitzaurre anonimo horiez gainera, badira bestelako kasuak ere. Esate baterako, Ismail Kadarereren *H Dosierra* (LU, 78. alea) lanaren itzulpena J.M. Arzalluzek eta Antton Olanok sinatzen dute, baina hitzaurrea itzultzaile bakarrak sinatzen du: J.M. Arzalluzek.

Sei liburutan agertzen dira itzultzaileak ez bestek idatzitako hitzaurre alo-grafoak:

Zenbakia	Egilea	Izenburua	Itzultzailea	Hitzaurregilea
31	Gustave Flaubert	<i>Madame Bovary</i>	Patxi Apalategi	Felipe Juaristi
54	Marguerite Duras	<i>Maitalea</i>	Mikel Garmendia	Rosa de Diego
70	Zenbait poeta katalan	<i>Antologia</i>	Gerardo Markuleta	Felipe Juaristi
98	Marcel Schwob	<i>Bizi alegiazkoak</i>	Juan Garzia	Iñaki Aldekoa
122	Pío Baroja	<i>Jakintzaren arbola</i>	Josu Zabaleta	Miguel Sánchez-Ostiz
123	Pío Baroja	<i>Zalakain abenturazalea</i>	Koro Navarro	Inazio Mujika Iraola

Hitzaurreetan bertan ez da ageri aipamenik hitzaurrea hirugarren batek idazteko hautuaz. Pentsatzekoa da itzultzailearen hautua edo nahia izatea lan hori literatur aditu bati eskatu izana.

Beren-beregi bildumarako idatzitako hitzaurrez gainera, bestelakoak ere badira (18 liburutan, hain zuzen ere). Zenbaitetan aitorialak dira (literatur lanen egileek idatziak), baina badira alografoak ere (hirugarren batek idatziak, alegia)¹³.

Zenbakia	Egilea	Izenburua	Itzultzailea	Hitzaurreak (itzultzailearenaz gainera)
1	Jonathan Swift	<i>Gulliver-en bidaiak</i>	Iñaki Mendiguren	Argitaratzaileak irakurleari (Richard Simpson)
2	Abbé Prévost	<i>Manon Lescaut</i>	Anton Narbaiza	Egilearen oharra (Abbé Prevost)
9	R.L. Stevenson	<i>Altxor Uhartea</i>	Maria Garikano	Erosle dudatiari (Sinatu gabea, egilearena dela pentsa daiteke)
25	Eça de Queiroz	<i>Mandarin zaharra</i>	Jesus Mari Lasa	«Revue Universelle»eko Idazlari jauna & Hitzaurrea (Eça de Queiroz) *Ez da jatorrizko bertsioaren berri ematen.
46	A. Von Chamisso	<i>Peter Schlemihl-en istorio miresgarria</i>	Antton Garikano	1) Nire lagun zahar Peter Schleichl-i, 2) Adelbert von Chamisso-k Julius Eduard Hitzig-i, 3) Fouqué-k lehengo berari, 4) Hitzig-ek Fouqué-ri (Hainbat egilerenak) *Ez da jatorrizko bertsioaren berri ematen.

¹³ Kasu honetan ere aberasgarri litzateke hitzaurreak baliatu izanaren arrazoiak aztertzea, baina ez dugu gaiari buruzko aipamenik topatu liburuetako gainerako hitzaurreetan.

Zenbakia	Egilea	Izenburua	Itzultzailea	Hitzaurreak (itzultzailearenaz gainera)
57	Marguerite Yourcenar	<i>Ekialdeko kontakizunak</i>	Imanol Zurutuza	Hitzatzea (Sinatu gabea, egilearena dela pentsa daiteke)
59	Choderlos de Laclos	<i>Harreman arriskutsuak</i>	Jon Muñoz	Argitaratzailearen oharra & Idazlearen aitzinsolasa. *Erabilitako jatorrizko bertsioetako itzulpenak direla aitortzen da.
64	Daniel Defoe	<i>Robinson Crusoe</i>	Aintzane Ibarzabal	Idazlearen hitzaurrea. *Ez da jatorrizko bertsioaren daturik ematen.
67	Giorgio Bassani	<i>Finzi-Continitarren lorategia</i>	Koldo Biguri	Hitzaurrea (sinatu gabea, egilearena dela pentsa daiteke). *Ez da jatorrizko bertsioaren daturik ematen.
71	Lawrence Sterne	<i>Bidaia sentimentala Frantzia eta Italian zehar</i>	Josu Baranbones	Bidaia sentimentala (V. Wolf, Josu Baranbonesek itzulia). *Kasu honetan, «Itzultzailearen oharra» hitzaurrearen ondoren dator.
76	Colette	<i>Mari-alderrai</i>	Periko Diez de Ulzurrun Sagalá	Aitzin-solasa (Egilea: Colette).

Zenbakia	Egilea	Izenburua	Itzultzailea	Hitzaurreak (itzultzailearenaz gainera)
81	George Sand	<i>Negu bat Mallorcan</i>	Miren Arratibel, Aintzane Atela	George Sand eta Frederic Chopinek Mallorcara egindako bidaiaren kronologia laburra (sinatu gabea) & Oharra (George Sand) & Bidaiari ohi baten gutuna lagun sedentario bati (sinatu gabea, egilearena dela pentsa daiteke).
87	Ambrose Bierce	<i>Deabruaren Hiztegia</i>	Xabier Olarra	Ambrose Bierceren hitzaurrea (Ambrose Bierce).
95	Juan Rulfo	<i>Pedro Paramo</i>	Juan Garzia	Hitzatzea (Carlos Blanco Aguinaga).
109	Jean-Paul Sartre	<i>Goragalea</i>	Monika Etxeberria	Argitaratzailearen oharra (sinadura gabea, izenburuak argitzen duenez, argitaratzailearena da). *Itzultzailearen hitzaurrean ez da jatorrizko bertsoaren berri ematen.
121	Nagib Mahfuz	<i>Mirarien kalezuloa</i>	Patxi Zubizarreta	Aitzin solasa (sinadura gabea, egilearena dela pentsa daiteke). *Itzultzailearen hitzaurrean ez da jatorrizko bertsoaren berri ematen.

Zenbakia	Egilea	Izenburua	Itzultzailea	Hitzaurreak (itzultzailearenaz gainera)
126	Antonio Tabucchi	<i>Porto Pimeko dama</i>	Fernando Rey	Aitzin solasa (sinadura gabea, egilearena dela pentsa daiteke). *Itzultzailearen hitzaurrean ez da jatorrizko bertsoaren berri ematen.
148	Fernando de Rojas	<i>Zelestina</i>	Jose Antonio Sarasola	Egileak bere lagun bati & Egileak, obra hau idaztean eginiko okerrenetatik barkazio eske, bere burua gaitzesten eta konparatzen du & Hitzaurrea; sinatu gabeak, egilearenak direla pentsa daiteke. *Itzultzailearen hitzaurrean ez da jatorrizko bertsoaren berri ematen.

Arestian adierazi dugu hitzaurreek euren ibilbidea egiten dutela eta ibilbide horri begiratzea aberasgarria dela oso: gordetzen ote diren jatorrizko hitzaurreak, hala bada zergatik, norenak gordetzen diren... Bada, LU bilduman zail da hitzaurreen ibilbideari jarraitzean; izan ere, gehienetan ez da erabilitako bertsoen berri ematen; hala, ezin daiteke jakin, kasurako, jatorrizko bertsoetan agertutako hitzaurreak mantendu diren, gerora agertutako edizioetakoak diren hona ekarritakoak, beste literatur sistemaren batzuetako hitzaurreak itzuli diren eta abar.

Edonola ere, beste sistema batzuetako zenbait hitzaurreen zantzuak bada dira gurean. Osorik ekarri dira zenbaitetan, taulan ikusi bezala. Beste batzuetan, hitzaurre horietatik aipua erauzten dira; esaterako, J.M. Arzallu-

zek Ismail Kadareren *H dosierra* (78. zk.) lanari idatzitakoan: kanpo-sistema baterako idatzitako hitzaurre batean esandakoak dakartza LU bildumarako idatzitako honetara.

– Copyrighta

Oro har, LU bilduman ez da hitzaurrearen egiletza aitortzen; alegia, hitzaurreak ez du copyrightik. Bost kasutan baino ez da aitortzen: 95. zenbakian (© Hondar solasa: Carlos Blanco Aguinaga), 98. zenbakian (© Hitzaurrea: Iñaki Aldekoa), 122. zenbakian (© Hitzaurrea: Miguel Sánchez-Ostiz & Hitzaurrearen itzulpena: I. Mujika Iraola), 123. zenbakian (© Hitzaurrea: 2006, Inazio Mujika Iraola) eta 151. zenbakian (© Itzulpena, sarrera, eranskinak eta mapak: Karlos Zabala Oiartzabal).

Aurreko datuoi begiratuta, uste izatekoa da hitzaurreak alografoak direnean aitortzen zaiela egiletza, baina ez da sistematikotasunik ageri horretan ere: Rosa de Diegok Marguerite Durasen *Maitalea* (itzulpena: Mikel Garmendia) lanari egindako hitzaurreak, esaterako, ez baitauka copyrightik.

– Hitzaurreen izenburua, forma eta luzera

Ondoko izenburuak ageri dira hitzaurreetan: Aitzin(-)solasa (7 aldiz), Atarikoak (2 aldiz), Aurkezpena (12 aldiz), Hitzaurrea (107 aldiz), Sarrera (6 aldiz), beste batzuk (18 aldiz). Ez dugu irizpide agerikorik topatu izenburuon erabileran, izan ere, zenbait hitzaurregilek izenburu ezberdinak darabiltzate liburu batean edo bestean, bi hitzaurre ageri diren kasuetan ez dira beti izenburu berak agertzen, eta abar.

Prosan idatzita daude aztertutako hitzaurre guztiak. 152 hitzaurreetatik 63 atalka banatuta daude. Bitxikeria gisa aipa daiteke, esaterako, Jon Muñozek *Parmako Kartusiaren* (bildumako 131. zk.) hitzaurrea hiztegi gisa eman izana.

Bildumako hitzaurreen luzerari dagokionez, askotarikoak dira: badira orrialde bakarrekoak, baina baita 35 orrialdera bitartekoak ere (paperezko

aleetan aztertutakoen artean; PDFn aztertutakoen artean, 2-25 orrialde bitarteko hitzaurreak ikus daitezke).

– Edukia

Hitzaurreetan ia salbuespenik gabe jorratzen diren gaiak dira egilea eta egilearen obraren nondik norakoak. Nolabait, kokatu egiten da testua. Hala ere, hitzaurreen luzerarekin gertatu bezalaxe, askotarikoa da gaien sakontasuna, eta gaiak jorratzeko moduak oso irregularrak dira.

Egilea eta obra kokatzeko bide izateaz gainera, esker-ematerako tartea izaten da hitzaurrea zenbaitetan. 22 kasutan gertatzen da hala¹⁴.

Antologiaren artean¹⁵, 10 aldiz aipatzen dira testuen ordenari edo hautuari¹⁶ buruzko irizpideak:

Zenbakia	Obra	Hitzaurregilea	Aipamena
3	<i>Ipuinak</i> , Anton Txekhov	X. Mendiguren Bereziartu	Bildumarako hautatutako ipuinen garaia aipatzen da, bai eta hemen bildutakoak sona handiena lortu duten ipuinek direla ere.
13	<i>Ipuin fantastikoak</i> , E.T.A. Hoffman	Sinatu gabea	Hautuari buruz ematen den informazio bakarra hau da: antologian jasotakoak «bilduma zabaleko ale bakar batzuk besterik» ez dira.

¹⁴ Hauek dira esker-emateak ageri dituzten aleen zenbakiak: 8, 16, 41, 43, 58, 59, 62, 63, 68, 78, 84, 85, 94, 95, 99, 110, 114, 116, 121, 139, 145, 146.

¹⁵ EIZIE elkarteak webgunean LU bildumari buruzko informazioa jasotzen du. «Orain arte argitaratuak» ataleko taulan, jatorrizko izenburuaren azpian «antologia» berbarekin edo **** ikurrekin markatutakoak hartu ditugu antologiatzat: orotara, 15 ale (13, 68, 70, 77, 88, 102, 116, 119, 120, 132, 134, 135, 140, 143, 146).

¹⁶ Kontuan har bedi itzulpen-lehiaketarako deialdian zenbaitetan hautatuta egoten dela itzuli beharreko ipuin-sorta.

Zenbakia	Obra	Hitzaurreilea	Aipamena
70	<i>Zenbait poeta katalan</i>	Felipe Juaristi	Itzultzailea ez den hitzaurregileak azaltzen duenez, antologiarako hautua itzultzailearen apeta eta gustua izan da.
77	<i>Ipuin hautatuak</i> , Jorge Luis Borges	Juan Garzia Garmendia	Hitzaurrean antologia apailatzeko baliatutako ordena kronologikoa aipatzen da, bai eta sartu ez direnak baztertzeko arrazoiak ere.
84	<i>Fantasiatzko ipuinak</i> , Guy de Maupassant	Sinatu gabea	Bilduma bera zein ediziotatik hartu den aipatzen da.
88	<i>Kontakizunak</i> , Edgar Allan Poe	Koro Navarro	Bilduma honetarako egilearen lan batzuk baino ez direla hautatu esaten da, eta antologiaren ordena-irizpidea kronologikoa dela.
116	<i>Hona hemen gu biok</i> , Dorothy Parker	Mirentxu Larrañaga	Ipuinak atontzeko ordenari buruzkoak esaten dira.
134	<i>Bizian argitaratuak</i> , Franz Kafka	Narrea Zubillaga	Ipuinen ordenari eta hautatutako testuei buruzko aipamena egiten da.
140	<i>Hildakoek ez dute hitz egiten</i> , Arthur Schnitzler	Ainhoa Irazustabarrena Barriola	Antologiaren ordena kronologikoa eta ipuinen garaia aipatzen dira.
146	<i>Eguzki kolpea</i> , Horacio Quiroga	Jesus Mari Mendizabal «Bizargorri»	Testuen ordena kronologikoa eta garaia aipatzen dira.

Baina, hemen ere ez da sistematikotasunik ageri, eta badira antologiaren irizpideak aipatzen ez dituzten hitzaurreak; esaterako, *Lubakia*, Andrei Platonov (143. zk.).

Arestian aurreratu dugu (itzulitako hitzaurrearen ibilbidearen harira) ez dela beti ematen itzulpenetako erabilitako bertsioren berri. Bada, aztertutako 152 hitzaurreetan 11 aldiz baino ez da aipatzen: 26. zenbakian, kasurako, Bibliako aipamenean iturria ematen da; 42. zenbakian, jatorrizko iturriaren eta irakurketa gehigarrien berri ematen da; 53. alean, jatorrizko fidagarrienaren berri ematen da, nahiz eta ez duen berak erabilitako edizioaren berri ematen; 57., 59., 62., 71., 79., 84. eta 85. zenbakietan itzulpenetako erabilitako bertsiak zein izan den aipatzen da; 145. zenbakian, esaterako, jatorrizko bertsiok gainera erabilitakoak ere aipatzen dira.

LU bildumako hitzaurreak itzultzaileak idazten dituzenez gero, pentsatzea da itzulpenari buruzko oharra jasotzen direla sarri. Ez da, baina, halakorik gertatzen. 152 liburu-tako 33tan baino ez dira itzulpenari buruzko argibideak ematen¹⁷. Batez ere hizkuntza-hautuei lotutako aipamenak izaten dira (hiztegia, puntuazioa, erregistroen trataera...). Izenburuaren itzulpena ere behin baino gehiagotan aipatzen da, itzultzailearen oharren justifikazioa bezalaxe; hizkuntza-kontuen aldean, askoz gutxiago aipatzen dira, esaterako, itzulpen-estrategiak.

Hona hemen itzulpenari buruz aipatutako gaien eta lanen zerrenda:

Zenbakia	Obra	Hitzaurreilea	Aipamena
1	<i>Gulliver-en bidaiak</i> , Jonathan Swift	Sinatu gabea	Barruko oharren justifikazioa.

¹⁷ Gaiari buruzko oharra egin zuen Bego Montoriok artikulu honen abiapuntu izan zen hitzaldia-
ren bukaeran: bere ustez, ez da harrigarria itzultzailea itzulpenaz hain gutxi aritzea; izan ere, «orain arte itzultzaileak oso barneratuta izan du ez zuela liburuan bere arrastorik utzi behar» eta «ohiturarik ez dago, ez egiteko, ez eta irakurtzeko ere».

Zenbakia	Obra	Hitzaurregilea	Aipamena
3	<i>Ipuinak</i> , Anton Txekhov	X. Mendiguren Bereziartu	Itzulpen-sistemaz: euskarara lehendabizikoz egin den itzulpena.
17	<i>Marcovaldo edo urtarook hirian</i> , Italo Calvino	Sinatu gabea	Itzulpenaren zailtasunaz («ez zait erraza gertatu itzulpen aproposa topatzea») eta izenburuaren itzulpenaz.
24	<i>Hautapen ahaidetasunak</i> , Goethe	Sinatu gabea	Itzulpen-adibide bat.
41	<i>Arratsaldeko atoiumtzia</i> , Yukio Mishima	Hiromi Yoshida	Jatorrizko hizkuntzaz, izenburuaren itzulpenaz.
44	<i>Gattopardo</i> , G. Tomasi di Lampedusa	Koldo Biguri	Izenburuaren itzulpenaz.
51	<i>Harrotasuna eta aurrejuzkua</i> , Jane Austen	Ana Isabel Morales	Hiztegiak, puntuazioaz.
53	<i>Urrezko astoa</i> , Luzio Apuleio	Juan Kruz Igerabide eta Anjel Lertxundi	Erregistroaren tratamenduaz.
59.	<i>Harreman arriskutsuak</i> , Choderlos de Laclos	Sinatu gabea	Oinarrian beste itzulpen bat erabili izana aitortzea.
62	<i>Bizitza lanbide</i> , Cesare Pavese	Sinatu gabea	Lexiko-hautuei buruzko jakingarri bat.
63	<i>Europarrak</i> , Henry James	Irene Aldasoro	Puntuazioari buruzko ohar bat.

Zenbakia	Obra	Hitzaurregilea	Aipamena
67	<i>Finzi-Continitarren lorategia</i> , Giorgio Bassani	Koldo Biguri	Oharrei buruz: «itzultzailearenak dira oharrak».
71	<i>Bidaia sentimental</i> Frantzia eta Italian zehar, Lawrence Sterne	Sinatu gabea	Puntuazioa eta sintaxiaz eta oharrei buruz.
83	<i>Lisboako setioaren historia</i> , José Saramago	Jon Alonso	Puntuazioaz. Itzultzea maitasunezko jarrera dela aitortzea.
84	<i>Fantasiako ipuinak</i> , Guy de Maupassant	Sinatu gabea	Egilearen estiloa itzultzeaz.
85	<i>Fidel izan beharraz</i> , Oscar Wilde	Antton Olano Iururtia	Izenburuaren itzulpenaz.
87	<i>Deabruaren hiztegia</i> , Ambrose Bierce	Xabier Olarra	«Itzultzailearentzat, lan zoragarria da, hitzaren zentzu bietan». Itzulpenaren zailtasunez.
94	<i>Abeslari burusoila</i> , Eugène Ionesco	Jon Muñoz	Hots-jokoak adierazteko saioa.
95	<i>Pedro Páramo</i> , Juan Rulfo	Juan Garzia Garmendia	Hartutako erabakien eztabaidagarritasuna, baliokidetasuna.

Zenbakia	Obra	Hitzaurregilea	Aipamena
99	<i>Artemio Cruzen heriotza</i> , Carlos Fuentes	Zuriñe Goti Artabe	Puntuazio-marken erabileraz eta izenordain batzuk maiuskulaz emateaz (jatorrizkoan ez bezala), pertsonaien izenak eta izenordainak ez nahasteko.
100	<i>Hamlet</i> , William Shakespeare	Juan Garzia Garmendia	Edizio kritikoa ez dela nabarmentzen da. Hizkuntza-ereduaz, joskeraz, neurtitzez.
114	<i>Desio izeneko tranbia</i> , Tennessee Williams	Xabier Paya	Konpentsazioaz eta egokitzeaz (erregistroak, hika baliatzea).
117	<i>Hildakoen Entziklopedia</i> , Danilo Kis	Monika Etxebarria	Zubi-hizkuntzez.
121	<i>Mirarien kalezuloa</i> , Nagib Mahfuz	Patxi Zubizarreta	Lertxundiren aipua itzulpenaz. Izen propioen itzulpenaz, izenburuaren itzulpenaz.
124	<i>Loti ederrak</i> , Yasunari Kawabata	Ibon Uribarri	Itzulpenaz atal osoa: japonierazko izenak nola eman diren, jatorrizko hizkuntzaren ezaugarriak, Miranderen <i>Haur besoetako</i> a irakurtzea lagungarri, itzulpenaren zailtasun handiena kultur testuingurua jasotzea, japonieratik zuzenean egin dela baina laguntzazko testuak erabili direla, zein izan diren aipatzen da, transliterazioa.
130	<i>Gainbehera dator dena</i> , Chinua Achebe	Alberto Martinez de la Cuadra	Hiztegi bat ematen da.

Zenbakia	Obra	Hitzaurregilea	Aipamena
137	<i>Sumendiaren azpian</i> , Malcolm Lowry	Karlos del Olmo	Itzulpen-zailtasunak zerrendatuta ageri dira.
146	<i>Eguzki kolpea</i> , Horacio Quiroga	Jesus Mari Mendizabal «Bizargorri»	Itzulpenaren zailtasunaz: hizkera.
147	<i>Kriseiluaren argipean</i> , Anxel Fole	Jose Mari Nasvascués Baskaran	Itzulpenaren zailtasunaz: hiztegi aldetik erronka.
148	<i>Zelestina</i> , Fernando de Rojas	Jon Antonio Sarasola Arregi	Oharrean, akrostikoen itzulezintasunaz.
149	<i>Denbora galduaren bila</i> - <i>Swann-enetik</i> , Marcel Proust	Joxe Austin Arrieta Ugartetxea	«luze jo dezake oztopoei buruz hitz egiteak, baina ez dut egingo».
151	<i>Zubi bat Drinaren gainean</i> , Karlos Zabala	Karlos Zabala Oiartzabal	Letra etzanez ageri diren hitzak hiztegi batean jasotzen direla aipatu, bukaeran. Transkripzioa eta ahoskera, grafian aldaketa jasandako izenen zerrenda eta hiztegia.
152	<i>Eromenaren mendietan</i> , H.P. Lovecraft	Ainara Ruiz Benito	Itzultzailearen eta egilearen arteko loturaz.

Bestalde, azpimarratzeko ezaugarria begitantzen zaigu itzulpenari buruzko kontuak hitzaurreen bukaera aldera jasotzea beti. Kasu oso bakanetan baino ez da bestela gertatzen¹⁸.

¹⁸ 95., 100., 121., 134. zk.

Beste sistema batetik gurera ekarritako obrak direnez itzulpenak, sarri gure sistemarekin loturak egin gura izaten dituzte hitzaurregileek. Gure idazleek itzulpenaz esandakoak aipatzen dira behin edo behin, edo obraren jatorrizko literatur sistema eta gurea konparatzen dira. Sarri ematen da autore beraren obra euskaratuen berri. Hala ikus daiteke 15 zenbakitan:

Zenbakia	Obra	Hitzaurregilea	Itzulpenari buruzko aipamena
46	<i>Peter Schlemihl-en istorio miresgarria</i> , A. Von Chamisso	Anton Garikano	Gure literatur sistemarekin lotura egiten da: «Azkenik, eta gugandik hurbil, 1828an idatzi zuen Des Basquen Etcheons Mage izeneko lantuzko poema ere, Etxahun Barkoxe Zuberoako koblakariari eskainia.»
66	<i>Ostegun izan zen gizona</i> , G.K. Chesterton	Juan Garzia Garmendia	«Saizarbitoriak gurean leiv-motiv moduan bere obretan erakusten duenez, itxarote hutsetik zerbaiten zain egotera dagoen aldea da kontua».
70	<i>Antologia</i> , Zenbait poeta katalan	Felipe Juaristi	Kataluniako eta Euskal Herriko poesia-sistemak konparatzen ditu hitzaurregileak. Bestalde, dagoeneko itzulita dauden lanen berri ematen da.
79	<i>Arima hilak</i> , Nikolai Vasilievitx Gogol	Jose Morales Belda	Itzulitako obren aipamena.
87	<i>Deabruaren hiztegia</i> , Ambrose Bierce	Xabier Olarra	Beste itzultzaile batzuk aipatzen dira.
100	<i>Hamlet</i> , William Shakespeare	Juan Garzia Garmendia	Obra beraren aurreko itzultzaileen berri.

Zenbakia	Obra	Hitzaurregilea	Itzulpenari buruzko aipamena
102	<i>Zortzi kontakizun</i> , Isaac Bashevis Singer	Koro Navarro	Atxagaren aipua hartzen da beste bertzio bateko sarreratik.
109	<i>Goragalea</i> , Jean-Paul Sartre	Monika Etxebarria	Jadanik euskaratutako lanen berri.
111	<i>Parisen sabela</i> , Émile Zola	Karlos Zabala Oartzabal	Euskaraz irakur daitezkeen obren berri ohar batean.
121	<i>Mirarien kalezuloa</i> , Nagib Mahfuz	Patxi Zubizarreta	Hiztegiei buruzko oharra, bi sistemak lotzeko.
126	<i>Porto Pimeko dama</i> , Antonio Tabucchi	Fernando Rey	Egileari euskaratutakoak.
134	<i>Bizian argitaratuak</i> , Franz Kafka	Naroa Zubillaga	Lehendik euskaratutakoen berri.
135	<i>Ulenspiegelen elezaharra</i> , Charles de Coster	Koldo Izagirre	«Euskaldunak Flandrian» izeneko atala.
136	<i>Esperantza</i> , André Malraux	Karlos Zabala Oartzabal	Hitzaurrearen fokua idazlearen eta Espainiako historiaren arteko loturan datza (gerra zibila, frankismoa...).
140	<i>Hildakoek ez dute hitz egiten</i> , Arthur Schnitzler	Ainhoa Irazustabarrena Barriola	Egilearen eta itzultzailearen lehenbiziko itzulpena dela nabarmentzen da.

Euskarara ekarritako literatur itzulpenen kritika publikoaren azterketa egin genuenean (ikus Ibarluzea, 2011), euskal literatur sistemara ekarrita-

koen katalogoaren berri (egilearen beraren zein lan dauden itzulita, herrialde bereko zein lan itzulita dauden, zer beste itzultzailek itzuli izan dituen lanok...) emateko joera hori berori nabarmendu genuen:

Jatorrizko polisistemak baino agerikotasun gutxiago du xede-polisistemak: 244 kritikatan aipatzen da, erdietan baino gutxiagotan.

Gehien ematen den informazioa, egilearen beste obrarik bada, haien izenburuak eta argitalpenei buruzkoak, edo itzultzaileak lehenago euskarara ekarritako beste obra batzuen izenak dira. Euskaraz irakur daitezkeen obren katalogo bat osatzea da, antza denez, xede-polisistemaren aipamena egiten duten kritikarien helburua.

(Ibarluzea, 2011: 72)

Bertakotasunaren aldean, atzerritartasuna nabarmentzen da beste kasu batzuetan:

Zenbakia	Obra	Hitzaurregilea	Itzulpenari buruzko aipamena
104	<i>Ararat mendiaren sumina</i> , Yasar Kemal	Fernando Rey	Beste errealitate batzuei begiratzeko parada nabarmentzen da.
134	<i>Bizian argitaratuak</i> , Franz Kafka	Naroa Zubillaga	Unibertsaltasuna nabarmentzen da (baita lehendik euskaratutakoen berri ematen ere).

Atzerritartasunera begira edo bertakotasunera begira egindako hitzaurreen arteko aldea ikusteko, ariketa polita da LU bilduman argitaratutako Pío Barojaren bi lanen hitzaurreak alderatzea. Egile beraren obra bi dira, bi itzultzaile, bi hitzaurregile, bi joera: *Jakintzaren arbola* (LU, 122) liburuaren hitzaurrean egileaz, obraz, kritikaz ari da Miguel Sánchez Ostiz hitzaurregilea, eta *Zalakain abenturazalea* obraren kasuan (LU, 123), Inazio Mujika Iraola hitzaurregileak Pío Barojak euskal munduarekin zuen lotura du hizpide.

Han-hor-hemen, hitzaurrea idazteagatik itzultzaileak egindako askotari-ko justifikazioak ere ageri dira: «Ohar hauen ausardia barkatuko al dit irakurleak! Ez dagokit niri liburu honen kritika egitea» dio, esaterako, Joxan Elosegik *Zaxie metroan* obraren hitzaurrean. Nolabait, auzitan jartzen du bere egitekoa ote den hitzaurrea egitea¹⁹.

Zenbakia	Obra	Hitzaurregilea	Aipamena
52	<i>Zaxie metroan</i> , Raymond Queneau	Joxan Elosegi	Itzultzaileak aitortzen du ez dagokiola berari kritika egitea. Honela dio hitzez hitz: «Ohar hauen ausardia barkatuko al dit irakurleak! Ez dagokit niri liburu honen kritika egitea». Bide batez esan dezagun ez duela hitzaurrean itzulpenari buruzko oharrik egiten; egileaz, obraz, egilearen hizkuntzaz eta liburuaz dabil.
100	<i>Hamlet</i> , William Shakespeare	Juan Garzia Garmendia	Edizio kritikoa ez dela nabarmentzen du hitzaurregileak.
114	<i>Desio izeneko tranbia</i> , Tennessee Williams	Xabier Paya	Ingelesezko bertsioan hitzaurrerik ez dela eta berak nahitaezkoak baino ez dituela aipatuko; irakurleari zuzenean zuzentzen zaio. Liburuaz eta itzulpenaz baino ez dabil.

¹⁹ Juan Garzia itzultzaileak gure hitzaldiaren amaieran egindako oharretik jaso genuenez, «itzultzaile askok gogoz kontra egin ohi dituzte hitzaurreak, kontratuan hala jasotzen delako egiten dituzte». Edonola ere, Juan Garziaren iritziz «hitzaurre akademikoak» gogorrak izaten dira, eta gurean itzultzaile-hitzaurregiek enbaxadore lana egin izan dute, obra jendeari hurbiltzeko. Juan Garziaren ustez, dagokigun bildumako hitzaurreen heterogeneotasun formala ez da txarra, betiere itzulitako obrak irakurleari hurbiltzeko testuak badira hitzaurreak, kasuan kasuko beharrianaren arabera.

Zenbakia	Obra	Hitzaurregilea	Aipamena
142	<i>Izatearen arintasun jasanezina</i> , Milan Kundera	Karlos Cid Abasolo	Hitzaurregileak ez ditu liburuaren gakoak irakurri baino lehen eman gura.

Lantzean, iritzi pertsonala ematera ausartzen da itzultzailea hitzaurrean:

Zenbakia	Obra	Hitzaurregilea	Aipamena
10	<i>Eskerregite eguneko bisitaria</i> , Truman Capote	Iñaki Iñurrieta	«baina niri ipuin zoragarria ere iruditu zait».

– Bibliografia-aipamenak hitzaurreetan

Lautan baino ez da ematen hitzaurrea idazteko baliatutako bibliografia: *Persiar Gutunak*, Montesquieu (38. alea, Itzul. & hitzaurreg.: Patri Urkizu); *Harrotasuna eta aurrejuzkuak*, Jane Austen (51. alea, Itzul. & hitzaurreg.: Ana Isabel Morales); *Ulenspiegelen elezaharra*, Charles de Coster (135. alea, Itzul. & hitzaurreg.: Koldo Izagirre) eta *Alferrikaldua*, Thomas Bernhard (141. alea, Itzul. & hitzaurreg.: Ibon Uribarri).

– Berrargitalpenetan zer?

Ikusirik LU bildumako lehen 100 izenburuak eskuraezinak zirela, obra horiek paperezko liburu-forman berreskuratzeko plangintza diseinatu zuen EIZIEk 2010. urtean, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailarekin duen lankidetzaren baitan. Aro horretarako hogei ale hautatu ziren, *Urrezko biblioteka* izeneko bilduman berrargitaratzeko²⁰.

²⁰ *Urrezko biblioteka* bildumari buruzkoak EIZIE elkartearen webgunean daude ikusgai: http://www.eizie.org/Argitalpenak/Literatura_Unibertsala/Berrargitalpenak.

Urrezko biblioteka bilduman berrargitaratutako lehenengo zortzi aleetan, ez da hitzaurre berririk gehitu, lehen aro hartan argitaratutako hitzaurre berak ematen dira, aldaketa txiki batzuk salbu: hizkuntza-zuzenketak (berrargitalpen guztien kasuan), atalen izenburuak gehitzea, itzultzailearen oharrei buruzko adierazpen bat gehitzea eta eskerrak kentzea (*Emakume abeslari burusoila*); eta sinadura gehitzea (*Lorategiko festa*). Nabarmentzekoa da *Madame Bovary*ren kasuan, edizio zaharrean (©) zuela hitzaurreak baina ez duela halakorik berrian.

EIZIEren eta Eusko Jaurlaritzaren bildumatik kanpo berrargitaratutako lanik ere bada: *Elkar* etxeak berrargitaratu zuen 2008an *Altxor uhartea* (Maria Garikanok LUrako 1991n egindako itzulpena). Robert Louis Stevenso- nen euskal bertsioaren berrargitalpenean ere hitzaurrea ez da batere aldatzen (hizkuntzazko zuzenketak izan ezik): LU bildumako lehen aroan zegoen-zegoenean argitaratu zen.

Ondorioak

LU bildumako 152 hitzaurreak aztertu ondoren, hau ondoriozta dezakegu: bildumako hitzaurreak askotarikoak dira luzera, izenburuak, antolamendua, edukia, bibliografia... kontuan hartuta, eta itzultzaileek irizpide bateraturik gabe jokatzeko dute. Nork bere irizpideei jarraitzen die, baina ez beti modu berean, orain batera eta beste behin bestera jokatu izan duenik bada eta. Oro har, funtzio entziklopedikoa dute LU bildumako hitzaurreak (egileaz eta obraz ari dira nabarmenki), eta itzultzaileek idatzitakoak izan arren, oso modu orokorrean dihardute itzulpenaz (hala egiten duten apurretan). Azken horren harira, esan genezake itzultzaileak bestelako bideetara jotzen duela horri dagozkion auziez gogoetatzeko: dela *Senex* aldizkaria, dela EIZIEren webgunean ikusgai den *Langintza xeheki* artikulu-sorta, eta abar.

Azterketa abiatu aurretik esan bezala, lan honek bildumaren azterketarako gai izan nahi luke, bai eta literatur itzulpenen hitzaurregileentzako bidelagun ere. Izan ere, ondokoak eztabaidagai dira: zer funtzio du LU bildumak?, nori zuzentzen zaio?, eta, horren arabera, LU bildumako liburuek hitzaurrea behar dute?, nolakoa behar luke hitzaurreak?, hitzaurrearen or-

dez, hitzatzea hobe?, nork idatzi behar lituzke hitzaurreak, itzultzaileak, literaturan adituak, bakoitzak bat?, itzultzailearen hitzaurreetan itzulpenari buruzko gogoetak gura ditugu?, beste edizio batzuetako hitzaurreak itzuli beharko lirateke?, orain arteko irizpiderik eza ikusita, hala jarraitzea komeni ote da edo aurrerantzean irizpideak zehaztu behar genituzke?, zein?, nola ekin aurrerantzean hitzaurreen *copyright*aren auziari?

Bibliografia

FRANCO, L. (ed.), 2004, *Textuel*, 46: *Aux Marges du texte: préface et postface*. Paris: Université Paris 7 - Denis Diderot.

GENETTE, G., 1987, *Seuils*. Paris: Editions du Seuil.

HAINBATEN ARTEAN, 2008, *Literatura Terminoen Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.

IBARLUZEA, M., 2011, *Literatur itzulpenaren kritika. Lehen pausoak: dibulgazio-kritikaren azterketa*. Bilbo: Labayru Ikastegia.

OUVRY-VIAL, B., 2004, «Enjeux de la préface ou préface contre postface» in Franco, L. (ed.), *Textuel*, 46: *Aux Marges du texte: préface et postface*. Paris: Université Paris 7 - Denis Diderot, 13-29.

PAYEN DE LA GARANDERIE, P., 2004, «Le livre en marche(s): les péri-textes littéraires en RDA» in Franco, L. (ed.), *Textuel*, 46: *Aux Marges du texte: préface et postface*. Paris: Université Paris 7 - Denis Diderot, 67-88.

RISTERUCCI-ROUDNICKY, D., 2004, «Doubles-seuils ou Le peritexte à l'épreuve de l'étranger» in Franco, L. (ed.), *Textuel*, 46: *Aux Marges du texte: préface et postface*. Paris: Université Paris 7 - Denis Diderot, 51-66.

———, 2008, *Introduction à l'analyse des oeuvres traduites*. Paris: Armand Colin.

SALADO, R., 2004, «Préfacier l'étranger: les premiers préfaces de Faulkner en France (Sanctuaire par Malraux et Tandis que j'agonise par Larbaud)» in Franco, L. (ed.), *Textuel*, 46: *Aux Marges du texte: préface et postface*. Paris: Université Paris 7 - Denis Diderot, 89-116.

SANCONIE, M., 2007, «Préface, postface, ou deux états du commentaire par des traducteurs» in *Palimpsestes*, 20 (2007) 161-176.